

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Legasako (Bertizarana) araztegi berriak Bidasoa ibaiaren tratamendua osatzen du

Esparza kontseilariak Nafarroako Gobernuak egindako instalazioa bisitatu du, eta guztira mila erabiltzaile inguru dituen Oronoz-Mugairi, Oiiregi eta Narbarteri ere zerbitzua ematen die

Martes, 02 de diciembre de 2014

Legasako (Bertizarana) araztegi berriak Bidasoa ibaiak jasotzen duen hondakin-uren tratamendua osatzen du. Gaur goizean Landa Garapen, Ingurumen, eta Toki Administrazioako kontseilari José Javier Esparzak bisitatutako instalazioak guztira mila biztanle inguru dituzten Oronoz- Mugairi (Baztan), Oiiregi eta Narbarteko (Bertizarana) udalerriei ere zerbitzua ematen die.



Esparza kontseilaria, erdian, teknikariek eta beste agintari batzuekin.

Ekitaldian parte hartu dute ere: Toki Administrazioako zuzendari nagusi Francisco Pérezek; Legasako Kontzejuko lehendakari Laura Andresenak; Oiiregiko Kontzejuko lehendakari José Nosellasek; Narbarteko Kontzejuko lehendakari Itziar Iriartek; Bertizaranako alkate José María Echartek; Baztango alkate Garbiñe Elizegik eta Oronoz-Mugairi Kontzejuko alkate Pablo Santerbasek.

Aixtondoko parajeen kokatuta, azpiegitura horrek udalerrri horietako isuriari erantzuten dio. 2012aren amaieran hasitako lehen fase batean, Legasa eta Narbarteko udalerrriak lotu ziren araztegiara. Bigarren batean, aurtengo martxotik aurrera egindakoa, gainerako udalerrriak. Zenbaitetan, lotura kolektore batzuk erabiliz egin da: Oronozko iparraldeko hondakin-urak 358 metro luzeko igorgailu baten bidez bideratzen dira, hegoalderako, berriz, 126 metroko beste bat

eraiki behar izan da. Oieregin, isuria Tipulatzeko auzoraino eramane behar izan da 439 metro luzeko kolektore batekin. Puntu horretatik, eta 82 metroko beste eroanbide baten bidez, urak ponpaketa-putzu baten bidez eramaten dira araztegiaraino.

Egungo instalazioa egunean 437 metro kubiko tratatzeko prestatuta dago, eta emari handieneko unetan, ekaitza dagoenean adibidez, egunero 1.049 metro kubiko ere hartzen ditu. 3,4 milioi euro balio du, kopuru horren % 20 Nafarroako Gobernuak finantzatu du eta % 80, berriz, saneamenduko kanonarekin. Kanon hori herritar guztiek ordaintzen dute NILSA, (Navarra de Infraestructuras, Locales, SA) Gobernuaren enpresa publikoak kudeatutako ur-ordainagiriaren bidez. Sozietate horrek 10 hilabete iraun duen obra ikuskatu du, eta instalazioen mantentze-lanaz ere arduratzen da.

Bestalde, orain arte Narbarte eta Legasari zerbitzua ematen zioten putzu septikoak eraitsi egin dira; amortizatuta geratu dira hamabost urtez baino gehiagoz funtzionamenduan izan ondoren.

Ibaian behera, Oitz-Donamaria eta Doneztebeko instalazioek Bidasoak jasotako isuriak garbitzen ditu aspalditik, Nafarroako Kantauri isurialde nagusia dena.

Aipatu behar da ere, 2013an 85.677.217 litro hondakin-ur tratatu zela guztira. Legasakoaz gain, azken 20 hilabeteotan obrak egin dira Ablitas, Arrieta (Artzi), Bakedano (Ameskoabarren), Espartza Zaraitzu, Ezkaroze, Iurre (Gesalatz), Jaurrieta, Arrada (Murillo el Cuende), Erripa (Gorza), Uztarroze eta Bidankozen. Gogoratu behar da, iragan azaroaren 17an Eslabako araztegia inauguratu zela; 133 pertsonari zerbitzua ematen die eta biztanle gutxiko udalerrietan egindako azpiegitura hidraulikoan egindako ahaleginaren eredu da.

Araztegiak bisitatzeko aukera

Legasa, Nafarroako araztegia guztiak bezala, NILSAren hezkuntza-eskaintzaren barnean sartzen da. Izen-emateak eta informazio-eskaera edozein pertsonak, ikastetxek edo elkartek egin dezake, www.nilsa.com webgunearen bidez. Bisitak aditu baten laguntzarekin egiten da beti; izan ere, nolabaiteko arriskuak dituen instalazioak dira eta segurtasun-protokolo oso zorrotzak dituzte.

Guztira 29.452 pertsonak parte hartu dute programa honetan 1999. urtean abian jarri zenetik. 2013ko irailetik aurtengo ekain artean arreta emandako taldeetatik, 203k gaztelaniaz hautatu zuten jardueretarako, 96k euskara eta 4k ingelesa. Erriberan jasotzen dira bisita gehien, eta haren atzetik dator iparraldea.



Esparza kontseilaria araztegiak nola funtzionatzen duen ikusten.

Kanpoaldeko jarduerak dira eskaera handienekoak, ibaiko tailerrak eta araztegiarako bisitak, esaterako. Gainera, parte-hartzaileek jasotako prestakuntza balioesten dute bisita amaitzean. Alde horretatik, aipatu behar da iaz ikastetxeetako irakasle nahiz ikasleen batez besteko balorazioa 4,5 puntu izan zela (gehienez 5 puntu eman daitezke).

Galería de fotos



Legasako araztegiaren irudi orokorra.